

Aski!

TXILLARDEGI



JOSE Ramon Etxebarriaren alde egin behar nukene zutabexoa hau, besterik gabe. 'País Vasco'ko Unibertsitatetik Joseña botatzea, herri honen krisi larriaren seinale eta sinbolo nabarmen iruditzen bait zait. Benetakok Euskal Unibertsitatea sortu nahian gailen eta txapeldun agertzen dena tris-turari gabe etxera bidaltzea, zinez, 'bere buruz mintzo baita'.

Baina deitorra eta hauen hits alferretan gelditzea, gutxiegi irudituko litzaidake. Geure ehortzetaren zantzuak asaldiriko gabe aitpatuko bagenitu bezala.

Joserra, eta Koldo, eta gainerako despedi-tuen kasua, gaitz ezin larriago honen adieraz-garria da: Arzalluz eta gainerakoek sartu digu-ten bidean barrena, herri hau putzura doa.

Kaseta hartu, eta zer irakurtzen dugu? Jaur-laritzak 'egunkari' honen heriotza erabaki duela. Nafarroako eskol irratienak egin duela. ETB-ak, isisilik, eguerdiko euskal saioa inork ikusiko ez duen ordura aldatzea erabaki zuela. Ilkatzolak, espainiar 'normalizazioa' de-la-ta, inkantean jarri direla. Baina, lasai: azal-pen irribarretsu eta falsuak ez dira luzatuko; Arregi, Txabarri, Bandres, Mari Karmen Gar-mendia, 'harki'-paper hori behar bezala baitaude hor. Gordinki esanda: egia latza izkutatzeke.

Ez balitzateke zuhurra Buesa, Recalde, Ro-jo, Mosquera, eta gainerako fatxa anti-euskal-dunak, nabarmenezi agertzea. Ikurriñaz mo-zorrozurik aisago irentsiko omen dugu.

Baina 'kulturalismo' tik at, zer? 'Altos Hor-nos' ere hetsiko dute. Denok 'azak jatera'! Abilenek (badakizue: 'abilentzia' handia Al Ca-pone hark) 'alkantarilla-lanetara'.

Eta, errua nor? Hau konpontzeko bizia emateko prest dauden jendilajeak. Eta berotik zapuztuko ez ditugunok.

Ez al da kaleetan eta plazetan aski oi hukaz-keko garaia?

H E M E R O T E K A



...Ez da ezer gertatzen. BARRABASI



ZULET / EL DIARIO VASCO

● EL DIARIO VASCO

Sozialismoa eta nazionalismoa Arabako arazoaren aurrean

(...) nere ustez Rojoren adie-razpen polemikoak pragmatismo eta egokitasun politikoaren baitan ere ulertu behar dira. UAK hauteskundera gero eta boto gehiago izateak eta Arabako lehen indar gisa alderdi hau azaltzen duten inkesten argitratzeak, beharrezko egiten zuten sozialisten erreakzioa gehiegi-ziko presio nazionalistaren aurre-ko erantzun gisa orain arte PSOEri bere botoa eman zie-zakoekin hauteslego hori be-rekuratzeko (...).

(...) Javier Rojok defenditu-takoaren moduko jarreak, nere iritiz, errealitate bakar baten

adiera pen desberdinak dira: Arabak Euskadi barruan nortasun berezia daukalako senti-mentua hain zuzen, eta Euskal Estatu bat egiteko proiektuen baitan Araba sartzea bai egoera politikoaren bai Autonomi El-karteko barne egituraren mende egon da. Eta zentzu honetan arazoi du buruzagi sozialistak baieztatzen duenean baldintza jakin batzuk bete gero hiru lu-ralde historikoen artean hitzar-tutako inkorporazioa ezingo li-tzatekeela aldatu alde aurretik arabarren iritziarekin hori ados-tuta egon gabe.

SANTIAGO DE PABLO

● EL PAIS

Idea berririk gabe

Gobernua Maastricht berro-ntsearen aldekoa da, nahiz eta ugariak diren aurretik dauden

arazoak. Oso jarrera defendigar-ria da. Kontrakoa nor bere alde-rik ibiltzearen alde apustua egitea lizitezke edo, gutxienez, Kohl eta Mitterrand agian azpika apailatzen ari diren bi abiadu-rrako Europa horren baietsa ofi-ziala. Gainera, erreferenduma egin zein egin gabe, dagoeneko bost Estatuk berronetsi dute hi-tzarmena: honen edukian ere al-daketa kasuan kasuko parla-mentuak zalandan jartzea lizita-teke eta, ziur aski, subiranotasun zaharren eta sortzen ari diren arteko gatazka biderkatzearen aldeko apustua egitea ere.

Baina ez da errealista Fran-tziako erreferendumaren ondo-ren sortu den errealistari be-giak ixtea. Boluntarismoa da, Frantziaren baitaren aldeko boto gehiago handi bat atera izan balitz, gainontzeko estaturen be-rronespen azkar batek berriro Danimarka erakertzeko baldin-tza politikoak sortuko zituzkeen (...).

Zentzuzkoa da urriko gailur berezian Espainiak abenduaren 31 baino lehenago berronetsi behar delako irizpideari eustea. Baina espainiar hiritarrek jakin behar dute jarrera horrek aurrera ez ateratzeko dituen positibita-teak handiki direla. Eta, batez ere, ez bada aurrera ateratzen, ez dela horregatik Espainia bakar-tua eta helbururik gabe gelditu-ko; gehienez ere Gobernuak lizita-

teke horiek gabe geldituko lizita-tekeena.

EDITORIALA

● EL CORREO ESPAÑOL

Xede argiak

Euskal gizarteak koalizio Gobernu zen lehendakariaren aldetik gure herriko egoerari buruzko diagnostiko zehatz eta azalkeriarik gabekoa eskatzen du, horren alderdi guztiei dago-kiena: baketze prozesua Ajuria Eneko Mahaian adostasuna part-zialki berreskuratu ondoren, autonomi elkartearen egitura-tzea, barnekoa eta Estatuaren aurrekoa, eta bereziki ekono-miak duen norabidea (...).

(...) Une honek azaltzen di-tuen nahasketak zein perspekti-ba argirik ezak lidgero bat eska-tzen dute, lehenengo eta behin lehendakariak bete behar duena eta azken urtean ez zegoela so-matu dena (...).

Politika orokorreko debate batek ezin du iritzen kontrajar-tzea sailhezu, eta ez oposizioak Gobernuak bete ez dituenak eta egindako hutsiegiteak kritikaztea ebitatu ere (...). Baina ez lizita-teke positiboa izango hurrengo hilabeteak hartuko duten hautes-kunde aurreko kutsu nabarmenak bilkura ealgar eztezeko saio bihurtzea.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Leitzarango erromeria

«Autobiaren erreforma ez da soluzio ekologikoa, proiektu desarroilitako txiki-tzaile beraren jarraipena baizik» lempaen, datorren igandeaz irailak 27, Leitzarango IV. Erroneria antolatzen dugu Autobiaren Aurkako Taldeek. Goizeko 9.30etan mendi ibilaldia aterako da Andoingo Beheko Plazatik, autobiaren obrek Amasa-Mendian eta Leitzarango eragindako txikizioa eta mendi puskak itzelak ikusteko. Leit-zarango Erroneria ez da, ohartuko zare-nez, autobiar buruzko akordioekin «loritu dugun garaipen garrantzitsuaren» (?) ospa-kizun bat, sistema gris, itogarri eta manipu-latzailearekiko gure desadostasuna adie-razteko eguna baizik.

Hain zuzen ere, mendi ibilaldian zehar-katuko dugun Amasa-Mendian ezarri dute,

lehenengoz, autobiarer «trazaketa aldaketa nahiz hobekuntza tekniko eta ekologikoen alde» adostutako politiki. Soluzio errealis-ta bakartzat agertu duten formula engai-nagarrak honen frakaso nabarmena da hemen: autobidearen ingurugiro erasoa Billabona gaineko mendietan lehendik larria baze-n, proiektu aldaketaen ondorioek erabateko suntsiketa ekarri dute. Diputazioaren esan-netan, «nolanahi ere, mendi hauek ez zuten deus ere balio». «Makina-eskabadorak bertan zeudenez ezin zen denborarik eta dirurik galdu», «obrak ez dira horregatik gelditu»... Halakoa da izenpetu dituzten akordioek eta ixiltasunak ematen dien in-punidada.

Bien bitartean, 'Euskal Herriko Errepide Plangintza' berria onartzekotan daude, sistemak garraioen arloan (beste arlo guztietan

bezalaxe) aurrera daraman basakeria antie-kologikoa eta antisoziala bultzatuz. Errepi-dez bideraturiko garraio motak energia xahutzailearik handienak, kutsakorrenak, arriskugarrienak, garestienak eta ingurune urbano nahiz naturalen suntsitzaienak di-rela jakina da; hala ere, trafikorearen hazkundu-a 'a tope' bultzatzen dute, sistema ekono-miko gutzit harrapatzaileak azkartzeko. Datorren urriaren 2n, Agustín Garcia Calvo idazle eta pentsalaria 'Kotxea eta Gizar-tea' gaiaz arituko den hitzaldi-etzabada antolatuko dugu, Donostian egingo den ekitalde honetan, autobien auzia ikuspegi des-berdin horretatik planteatuko da.

Animatzen zaitugu ekitalde hauetan par-te hartzera.

AUTOBIAREN AURKAKO TALDEAK Donostia

Lore bat

HASIER ETXEBERRIA



GAURKOA eta 'harkoa' balantze egunak dira. Donostiako Zinemaldiaren berrogeigarren edizioarentzat eta ikusiko duzue nola, gaur eta

biharko egunkarrietan, jipoia eta astindua ez zaie faltako bere antolatzaile diren Barnet eta Anasagasti.

Oinarrian egia izango da filmek ekarri du-ten kalitate eskas xamarra dela. Agian izar gehiegi ere ez du dizdiz egin Kontxako uretan, baina egunez egun kritikak ezker eskubi banatu dituen makilkadak, oinarrian badute egia gor-dinarekin zerikusirik ez daukan zerbitu. Kriti-kagintza ajeak dira. Bete bezala.

Kritikaria putzarekin alderatu izan da ia be-ri: berak ezer sortzeko gaitasunik ez, eta bes-teek egindakoaren apurak aipatzetik bizi behar. Narratzen ofizio bilakatu da kritika. Ziraun, musker eta sugeen soldatubidea.

Nabarmendu beharrek espektakulua sorta-razten duenez, zenbat eta gogor eta ankerrago aritu, arrakastatsuago bihurtu ohi du kritikaria. Zenbat eta zarata gehiago, ausartagoa. Zenbat eta gogorrago, zuzenagoa. Zenbat eta horiago, hobeto.

Donostiako Zinemaldia aproposa izaten da horretarako, Jainkoen mailara igotzearen sen-tasioa ematen bait du holako edo halako zu-zendarik egindako filma kaka dela bi hitzetan esteak. Sentasio gozoa da, persona zerutar-tzen duen horietakoa. Gauza bere gertatzen da, halako glamourra daukan ekitaldi bat antolatu dutenekin sartzerakoan eta hala, ez da falta ahoitsik, 500 milioi, halako emaitzak lorzeko, gehiegi zokorru dela esaten hasi denik. Munduko gauza errazena baita arbolatik agur egitea.

Haatik lore bat nahi du nik Zinemaldiaren alde, aurtengoa zine independentiek irabazi bait du eta lehenagoko edizio haietan amerikarrek behartzen zituzten filme multzo haiek ez bait ditugu inon ikusi. Casavettes, egile be-riek, poloniarrek, dokumentalek, hegomeri-ketarrek... euki dute lekua. Ausardia deitzen zaio horri.


GAIA JARRITA

Urbina- Maltzaga edo N-1 errepidea



Etxegarate zabaldu nahi da Urbina-Maltzaga berdin, baina bientzat dirurik ez da eta orain zeini ekin? Batuzen pozak sortu dezake besteentzat hainbeste min, krisia dago Euskadin ta obrak burutu ezin, erremedio on bat badago norbaitek nahi balu jakin: hasi zaitezte auzolanean langabetu guztiak (Bir).

MIKEL MENDIZABAL



Batzorde Parakidua: 725641 / Lego Oinarritza: SS 800/90

Table with administrative information: Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE; Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI; Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE; Gerentea: FERMIN LAZKANO; Zuzendaria: INAKI URIA; Zuzendariordea: LUZUEN ETXEHARRRETA; Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUGA; Sustapena: NÉREA AZURMENDI; Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK: Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industriadun 01-02, Publihuil / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93; Egokita soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57; Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73; Nafarroa: Iruñea, 45-13.esk. / (Irrintzi dorreai) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / Faxa: 17 80 77; Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60; Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kaia, / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 / Faxa: 59 25 75 11